

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

Deialdiak

2024ko abuztuaren 21ean emandako dekretu baten bitartez lurzoru publikoa okupatzeko jarraian zehaztutako deialdiak egitea eta baimena esleitzeko oinarri arautzaileak onartzea erabaki zuen Alkateak.

Lurzoru publikoa okupatzeko baimenak esleitzeko deialdien xedea:

– Nagusiki 2-10 urte bitarteko adingabeei zuzendutako feria instalatzeko. Esp.: 2024BLIZ0003.

– 2025. urtean, ogitartekoak, patata eta antzekoak saltzeko furgoneta edo antzeko ibilgailuekin. Esp.: 2024BLIZ0004.

– 2025. urtean, txurroak ibilgailuarekin saltzeko. Esp.: 2024BLIZ0005.

Okupazioen datak: dagokion oinarri arautzaileetan jasota.

Erakunde esleipenduna: Bergarako Udala (Idazkaritza).

Dokumentazioa eta informazioa lortzea: <https://bergara.eus/eu/deialdiak>. kontratazioa@bergara.eus.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaera idatziz aurkeztuko da, oinarri arautzaileetan zehaztutako inprimakia beteta.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 8an, 13:00etan bukatuko da.

Ebazpenaren aurkako bideak: Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka interesdunek Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzaten beste edozein errekurtso ere jar dezakete.

Lege-oinarria: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2024ko abuztuaren 21a.—Idazkaria. (6197)

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Convocatorias

El Alcalde, mediante decreto de 21 de agosto de 2024, acordó convocar y aprobar las bases reguladoras para la adjudicación de autorizaciones para la ocupación de suelo público que a continuación se indican.

Objeto de las convocatorias para la adjudicación de las autorizaciones de ocupación de suelo público:

– Instalación de feria dirigida principalmente a menores de 2 a 10 años. Exp.: 2024BLIZ0003.

– Venta de bocadillos, patatas y similares con furgonetas o vehículos similares durante el año 2025. Exp.: 2024BLIZ0004.

– Venta de churros con vehículo en el año 2025. Exp.: 2024BLIZ0005.

Fechas de la ocupaciones: recogidas en las bases reguladoras correspondientes.

Entidad adjudicataria: Ayuntamiento de Bergara (Secretaría).

Obtención de documentación e información: <https://bergara.eus/eu/deialdiak>. kontratazioa@bergara.eus.

Presentación de solicitudes:

La solicitud será presentada por escrito, cumplimentando el impreso correspondiente señalado en las bases reguladoras.

El plazo de presentación de instancias finalizará el día 8 de noviembre de 2024 a las 13:00 horas.

Recursos contra la resolución: Contra la resolución que se publica, y que es definitiva en vía administrativa, cualquier interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Fundamentos jurídicos: Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley, así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, a 21 de agosto de 2024.—El secretario. (6197)